

## EZIN UKA

Ezin uka  
gizonen burruka  
zuzengabetik dator  
eta da galkor;  
alde batetik  
zuzen gosea  
eta bestetik  
indar zapaltzalea,  
hortik  
bien arteko gerra  
eta herra  
ezin aseá.

Zu ta ni ta besteak  
hartzén gaitu aserreak  
mundu zabaléan,  
ikusirik  
gizonen arteko  
zentzugabekeria,  
bitartean  
mugagabea  
gizonen nahigabea.

## ILLUNPETAKO GIZONA

Illunpetako  
lantegi latzetan  
gure lurra iraultzen  
ari zerana,  
beso zainak daldarrez  
begiak ikaraz...  
Illunpetako gizon  
zaitut gogoan.

Itzaliak iresten  
zaituenean  
nor izango duzu  
zutaz oroitzeko  
bide zailletatik  
abiatutzeko...  
Illunpetako gizon  
zaitut gogoan.

Egun senti berria  
noiz argitu behar duk  
gaua luzea zijoak  
etor adí,  
gau beltzeko txori  
kantari motela...  
Illunpetako gizon  
zaitut gogoan.

Egun larri batez  
zu eroritzean  
negar egingo duzu  
anaia guztiok,  
ilargi gornia  
ezkutatuko da...  
Illunpetako gizon  
zaitut gogoan.

## EKAITZA

Ekaitzak ekaitzak  
ostoaik daramazki  
zugaitzak bilutsirik.

Negarra negarra  
eriotz usaia  
inguruan utzirik.

Gure basoko  
zugaitz legorrek  
oraindik irauten dute.

Lurraren babesak  
emango die  
itxaropenezko bizitza.

Ekaitza ekaitza  
zure indarra  
ez da iraunkorra.

Udaberria etorriko da  
berarekin loreak.

Bizitza berri bat  
etorriko da  
legortuko dira malkoak.

Aize legunak laztanduko ditu  
gure aurpegi penatuak.

## UMEAK ERE JAKIN DUTE

Bi mila makil dabilta  
niñez mundua zabaltzen,  
bizkar guztiak okertuta  
makil guztien menpean.

Zuhaitzen lorak lurperatu dute  
hainbat gazteen antsia,  
makilen lorak eskeini digute  
irriparren lez makillada.

Umeez ere jakin dute,  
jakin beharko berria.  
Mendiz mendi entzun dugu hotsa  
mendez mende izan lotsa.

Umeez ere badakite  
zein zaila zaigun bitzta,  
umeez ere esan dute  
zein erreza dan heriotza.

## AITA SALDU NAUZU

Aita saldu nauzu  
idi bat bezela  
eta abandonatu ez  
baninduzun bezela ez  
baninduzun bezela.

Aita nerea  
lotsarik gabea  
«ariyo» triste bat  
izan da erentzi zurea  
erentzi zurea.

Aita nereak  
utzi naun bezala  
ilunpean bizi behar  
etxetikan urrundi  
etxetikan urrundi.

## SASI INTELEKTUALAK

Gure herriko  
jakintsua  
intelektuala  
itz politteen  
jaun eta jabea.

Beti gotik behera  
begira zaudena  
barran behin ere  
lurra ikultzen  
ez duzuna.

Gauz onak  
eta txarrak  
ezagutzen dituzuna  
herri maitale  
pare gabea  
tertuili bakoitzean  
mundu bat  
konpontzen duzuna.

Zure buitzaden  
zai dagoen herria,  
ez ote da aspertuko  
zuri begira?

## ZENBAT GERA

Zenbat gera?  
lau, bat  
iru, bost, zazpi?

Zer egin dugu? ezerrez  
Zer egiten dugu? alkar jo  
Zer egingo dugu? alkar ill?...

Gure asmoak, esperantzak  
herria, askatasuna,  
justizia, pakea  
egia, maitasuna  
mitoak itz hutsak.

Zenbat gera...  
lau, bat  
iru, bost, zazpi?

Zer egin dugu? ezerrez  
Zer egiten dugu? alkar jo  
Zer egingo dugu? alkar ill?...

Hori ez!... Hori ez!... Hori ez!...

## TRISTE JARTZEN NAUZU

Triste jartzen nauzu  
triste  
ez kanpotik  
bai barrundik  
begiratzen nauzulako  
inor begiratzekorik  
ez duzunean.

Triste jartzen nauzu  
triste  
ez kanpotik  
bai barrundik  
jaten eman didazulako  
zeini ematekorik  
ez zenunean.

Baiñan ez gehiago  
tristurarik  
ez kanpotik  
ez barrundik  
nahiago gorrotoa  
ezen ez errukia  
bai makilla  
bainan ez limosnik  
karitateak  
lotsa baitu berarekin.

## URAK DAKARRENA

Urak dakarrena  
urak daroa  
lurrak emandakoa  
lurrean gelditz en da.

Eta gu hemen  
beti gu hemen.

Zuhaitzak bezala lurrean  
kantuak bezala haizean  
muniak bezala erroetan  
ura bezala itsasoan.

Ekaitzak bota-arazten  
ipar eta hego aldeetik  
gizonak izateko hasi behar da  
gizon izatan hemen.

## GURE BIDE GALDUAK

Gu gazteok gaur gabilza  
mundo galdu honetan,  
gerra bat barruan dugula  
zer egin jakin gabe,  
gurasoen mundo aldrebes hau  
ez dugu onartzen,  
diruaren morroi izaten  
erakutsi digute  
ilunpe horrek  
bakardade galduan utzi gaitu,  
argirik gabeko bideak  
etorkizunik ez du,  
bizimodu lasai batengatik  
idealak galdu,  
bizitzaren gauz ederrenak  
dizkigute zapaldu.

Maitasun itzak nai nituzke esan  
baiñan gaur ezin dut  
gure bide galduak  
kalte hau ekarri dit.

## EZ KANTA BELTZA

Kaleak sutan jarri ziraden  
eta zakurrak katerik gabe  
beren bizitzen nagusi.  
Ordu larriak urbil daude ta  
libertadeko gorritasuna  
zeniek ez du nai ikusi?

Iges doazen ur lodi hoiak  
ludi osoa artuko dute,  
aserearen eskubideak mintzo  
gogorrez altxa baitira.

Ez kanta, beltza, alperrik da ta,  
indarren kontra jaso indarra  
zuen bizitza oso motza da  
egin zazute librea.

Goseen Harlem, doñu zakarra,  
izan gabeko mixeri zarra,  
bular lagorrak zintzilik eta  
irentsitako karraxi latza.

Ez kanta, beltza, alperrik ez kanta,  
indarren kontra jaso indarra,  
Moises zerutik jexiko ez da,  
urragatik saldu da.

Baiñan zu, beltza, asten bazera,  
gu ere beltzak izango gara,  
bein betiko burruka hortan  
nausi berdiñen legeen kontra.

Ez kanta, beltza, berriz ez kanta,  
itxi aboak, jaso ezpata,  
gure bizitza gurea da ta,  
inork ez beza lapurtu.

## EGIA

Mendiak zugaitzak ba ditu  
ibaietan ura djoa  
zeruak izarrak ditu  
egunak argi, gauak ilun;  
udaberi argitsu loretsu  
udazkena berriz ebitsu  
gizona da bizitzarako  
egiak haundiak dira.

Bainan egia, egia, egia  
zertarako galdetu nahi nuke  
egia, egia gizonak  
esateko baimenik ez badu.

Egia, Egia, Egia,  
ZERTARAKO?

## JABETASUNA

Gure nahren griñak  
eziñezko uretan  
murgildurik daude.

Pauso baldar askoren  
jabe egiñik  
ala ere aurrerako  
asmoekin.

Zu, zer nai dezun  
ondo dakizuna  
zertan zaude patxara ortan  
eskuak lotuta  
etxekoak ez diran oien  
limosnaren zai.

Zu, malco lodiz  
negarrez zaudena  
mugiltzeko bidurrez  
elkain sartuta  
altxako aktozu burua  
jabetasunez, jabetasunez  
jabetasunez burua.